



Nico Hirtt

Fisika eta Matematikako irakasle erretiratu, sindikalista, ikerlari marxista eta Aped elkartearen kide fundatzailea (Appel pour une école démocratique / Eskola demokratikoaren aldeko deia). Halaber, hezkuntzari buruzko artikulu eta liburu asko idatzi ditu. L'école démocratique aldizkariaren erredaktore burua izan da eta bere azken liburua da *Qu'as-tu appris à l'école ?*

Izenburua:

Merkatuen kontrolpeko eskola: lehiakortasuna eta gaitasunak

Laburpena:

Ustezko "modernitatearen" atzean, horren izenean hezkuntza aldatzen ari baita, ixilpeko interesak ezkututzen dira. Lan merkatu aldakorren beharrei egokitzeko prestakuntza bi bidetatik eramateak gaitasunak lehenestera bultzatzen ditu hezkuntza sistemaren arduradunak, jakintzak bazterrean utzita. Bultzatzen ditu, halaber, hezkuntza demokratizatzeke helburuak zokoratzea eta kualifikazioa enpleagarritasun bihurtzera. Derrigorrezko hezkuntzak giza kapital malgua eta aise egokitzen dena sortzen du, pertsona kritiko eta askeak sortu beharrean; informazio eta komunikazioen teknologien merkatuak pizten ditu; bultzatzen du lehia handitzera eta hezkuntza bihurtzera inbertsio onuragarrien eremu berria. Merkantilizazio hirukoitz honi sendo eusten diote enpresaburuen elkarteek eta Europar Batzordeak.

Felix Exeberria (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Zientzietako irakaslea. Bere ikerketa ildo nagusiak hauek dira: eleaniztasuna eta hezkuntza, hezkuntza etorkinekin, eskola porrota, eskolako indarkeria, bideojokoak, hiri hezitzaileak, eta, aurreritziak eta hezkuntza. Bere azken lan argitaratuak hauek dira: Evaluation of oral competence in Basque amongst native and immigrant pupils (2015), Bilingual education in the Basque Country 1960-2014 (2015).

Izenburua:

Cumminsen bizikleta eta hirueletasun goiztiarraren moto-salmenta

Laburpena:

Oraindik euskaren normalizazitik urruti gauden honetan, programa hirueledunek zalantza ugari planteatzen dituzte. Horrela, esperientzia isolatuen ustezko arrakasta ezin da orokortu hezkuntza sistema osora. Besterik gabe, ezin dira alderatu programa horiek bertako hizkuntza normalizatua dagoenean edo ez dagoenean. Jadanik europar erakundeek zalantzan jarri dute programa hirueledunen ezarpena estatu espainarreko zenbait komunitate autonomotan eta Nafarroan, bertako gobernuak PAIren ebaluazioaren hasieran gabezia nabarmenak aurkitu ditu.

Luci Nussbaum

UABko irakaslea (Universitat Autònoma de Barcelona)

Hizkuntzen irakasleen prestatzailea UANn eta GREIPen koordinatzailea. Interesa dut, batez ere, eleaniztasunaren didaktikan: nola lortu ikasleak baliabide eta esperientzia guztiak erabiltzea gaitasun berriak eskuratzeko hizkuntzaren, gizartearen eta ikasketen alorretan. Benetan maite dut ikertzea nolatan gauzatzen den elkarreragina eleaniztasuna eta zenbait kultura batera dauden lekuetan. Elkarrizketen azterketak laguntzen dit hori egiten.

Izenburua:

Eleaniztasunaren didaktika baten alde soziolinguistikoak

Laburpena:

Maiz, ikasleen hizkuntza prestakuntzarako hezkuntza politikak eraikitzen dira ideologia elebakarren gainean eta hizkuntza ikasketaren inguruan egin berri diren ikerketek berrestu gabeko sinismenetan. Aurkezpen honetan, eleaniztasunaren didaktikaren neurriez gogoeta egitera gonbidatzen dugu, hizkuntza prestakuntza gizarte eta eskola gaitasunak eraikitzea den heinean. Lehenbiziko zatian, hezkuntza jardunean dauden zenbait mitori buruz mintzatuko gara (hizkuntzen prestigioa, ikasteko adina, eskuratu behar diren gaitasunak...). Bigarrenean, eleaniztasunaren plangintzaz eta didaktikaz hausnarketarako ardatz batzuk ezartzen saiatuko gara.

Julia Llompert

GREIP taldeko ikerlaria (Universitat Autònoma de Barcelona)

Lizentziatua Itzulpengintzan eta Interpretaritzan (katalana, ingelesa eta arabiera). Gero, didaktika aldera bideratu zuen bere prestakuntza. Gaur egun, tesi doktora egiten ari da UABn, eskola eleaniztasuna eta belaunaldien arteko eta belaunaldiaren barneko hizkuntza transmisioa ikertzen ditu.

Izenburua:

**Nola bilakatu askotariko ikaslea bere ikaskuntzaren protagonista?
Kontuan hartu askotariko ikasleen eleaniztunerako gaitasunak:
proposamen didaktikoak.**

Laburpena:

Ongi dakigunez, gela eta ikastetxe askotan ikasle heterogeneoak topatzen ditugu jotorriaren, ibilbideen eta gaitasunen aldetik. Errealitate hau erronka bat da ikasleen hizkuntza prestakuntzarako -bai erakunde-hizkuntzena, bai jatorri hizkuntzena ere -. Hizkuntzak irakasteko eta ikasteko proposamen didaktikoak elebakarrak dira, usu -berdin gertatzen da geletako hizkuntza erabileraren arauarekin- eta ahazten dituzte ikasle eleaniztunek aurretik dakartzaten gaitasunak.